

Pinturas Iztietak Industrias Titan S.A. ren laguntzaz antolaturiko

19. Pintura Lehiaketa -ren oinarriak

1 - Partaideek pertsonalki aurkeztu beharko dituzte lehiaketarako lan orijinalak, eta honekin batera lanaren fitxa bat eta N.A.N.aren kopia bat eramango duen sobre itxia.

2 - Lanek gaia eta teknika librea izango dute, oinarri bezela mihisea edo antzerako materiala eta gehieneko tamaina 81 x 65 cm-koa izanik. Lanak firmarik gabe aurkeztu beharko dira, antolatzaileek ezarritako zenbaki batez identifikatuko direlarik.

3 - Lanak aurkezteko epea 2.014-ko abenduaren 1-tik 13-ra izango da. Egile bakoitzak lan bakar bat aurkeztu ahal izango du. Epaimahiak aurkezturiko lanen aurretiko aukeraketa bat egingo du, finalerako lanak aukeratzuz. Epaimahaiak, lan ezagunen kopien aurretik, jatorrizko lanei emango die lehentasuna.

4 - Aukeraturiko lanak **Pinturas Iztietak** Errenteriako Diputazio Plazan duen dendan aurkeztuak egongo dira abenduaren 17-tik urtarrilaren 6-rarte.

5 - Epaimahiak 2.014-ko abenduaren 26-an emango du jakitera bere erabakia eta aldaezina izango da.

6 - Ondorengo sariak banatuko dira, hiru mailetan banatuta:

Helduak:

1. Saria : 300 € eta **Titan** oleo maletin handia
2. Saria : 200 € eta **Titan** oleo maletin handia

Gazteak (14 eta 18 urte bitartekoak) :

Saria : **Titan** oleo maletin handia

Haurrak (13 urte arte) :

Saria : **Titan** oleo maletin handia

10 urtetik beherako artisten lanik aipagarrienaren saria: **Titan** oleo maletina

7 - Saririk lortzen ez dutenen artean, "Donosti" Sagardotegian bi pertsonentzako afari bat eta Arte Ederretako hainbat materiale zozketatuko dira.

8 - **Almacenes Iztietak S.A.**-ak jasotako lanak ahalik eta ondoen zainduko ditu baina inolako kalterik, lapurketarik edo abarrik jasango balute, ez da beraien arduradun egingo. Erakusketa ondoren egileek lanak gehienez hilabeteko epean jaso ahal izango dituzte. Epe hau gainditu ondoren, egileak lanen gaineko eskubide guztiak galduko dituzte.

9 - Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.

almacenes iztieta s.a.